



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO URRIAREN 14AN  
GOIZEKO 10:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Mertxe Aizpurua Arzallus.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jose Maria Rivadeneyra Sicilia.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Jone Urdanpilleta Urdanpilletak eta Josu Portu Alzagak.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

**\*2014/09/30EKO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2014ko irailaren 30eko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Jose M<sup>a</sup> Rivadeneyraren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

**\*2014/10/09KO EZOHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2014ko urriaren 9ko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Jose M<sup>a</sup> Rivadeneyraren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

**2.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-47 (ETXEALDIA) EREMUAN, SAN ESTEBAN BIDEA, 8 BEHEKO A LOKALEAN MOLDATU DEN ETXEBIZITZARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA ETA, HALABER, UDAL ETXEBIZITZA TASATUAREN BEHIN BETIKO KALIFIKAZIO IRAUNKORRA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2012-0112

JULIAN MARIA ZUBELDIA CINCUNEGUI jaunaren ordezkartzan diharduen JACINTO ERICE ARAS jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, San Esteban bidea, 8 behean kokatutako A lokal komertzialean moldatutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatu du.

**LOKALAREN ERABILERA ALDAKETA**

Behin betikoz onartua dagoen «hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantza» kontutan izanik, tokiko gobernu batzordeak, 2008ko ekainaren 10ean, maria pilar gorriti pagola andereari, hiri antolamenduko arau subsidiarioetako a-47 (etxealdia) eremuan, san esteban bidea, 8 behean duen a lokala (erreferentzi katastrala:



Usurbilgo Udala



77 91 220; zenbaki finkoa: 108944 d) egoitzazko erabilerara aldatzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

Lokalaren erabilera aldaketa 2012ko martxoaren 12an gauzatu zen maria pilar gorriti pagola anderearen eta usurbilgo udalaren artean izenpetutako hitzarmenaren bidez. Lokalaren jabeak ezarritako hirigintza kargak (9.315,89 €) egun berean ordaindu zituen.

### UDAL ETXEBIZITZA TASATUAREN BEHIN BEHINGO KALIFIKAZIOA

Tokiko gobernu batzarrak, 2013ko urtarrilaren 29an, hiri antolamenduko arau subsidiarioetako a-47 (etxealdia) eremuan, san esteban bidea, 8 beheko a lokalean moldatuko den etxebizitzari udal etxebizitza tasatuaren behin behingo kalifikazioa ematea erabaki zuen ondoko zehaztapenekin:

Espediente zenbakia:	HZ.04/2012-0112
Sustatzailea(k):	<ul style="list-style-type: none"><li>MARIA PILAR GORRITI PAGOLA NAN: 72.420.909-G Helbidea: Mahaspildeggi Etxea (Sakabanatuak 3.Sek. - 3, 1) / 20170 Usurbil</li></ul>
Sustapenaren ezaugarriak:	<ul style="list-style-type: none"><li>Etxebizitza kopurua: 1</li><li>Etxebizitzaren azalera erabilgarria: 60,20 m<sup>2</sup></li></ul>
Etxebizitzaren erabilera erregimena:	Salmenta
Gehieneko salmenta prezioa:	179.840,05 €
Udal Etxebizitza Tasatuaren babes erregimena eta epea	<ul style="list-style-type: none"><li>Erregimen Berezia.</li><li>Babes iraunkorra.</li></ul>
Partzelaren katastroko datuak:	<ul style="list-style-type: none"><li>Zenbaki finkoa: 108944 D</li><li>Erreferentzi katastrala: 77 91 220</li></ul>

### ETXEBIZITZA MOLDATZEKO OBRETARAKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko urtarrilaren 29an, MARIA PILAR GORRITI PAGOLA andereari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-47 (Etxealdia) Eremuan, San Esteban bidea, 8 behean duen A lokala etxebizitza bihurtzeko obretarako udal baimena ematea erabaki zuen.

### ETXEBIZITZAREN ESLEIPENDUNA IZENDATZEA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko urtarrilaren 29an, hartutako erabakiaren baitan, Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera



Usurbilgo Udala



egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzako 19. artikulua erabera, Usurbilgo Udalarik dagokio etxebizitzaren esleipenduna izendatzea.

### LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZETIK ERATORRITAKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ESLEIPENA

Alkatetzak, 2014ko urriaren 8an, 2014/0938 dekretuaren bidez, dagokion izapidetzearen ondoren, ALFONSO GONZALEZ LOPEZ jauna eta MAIDER TELLECHERA ARZAMENDI anderea, San Esteban bidea 8, behean Udala Etxebizitza Tasatua bezala behin behingoz kalifikatutako etxebizitzaren esleipendun izendatzea erabaki zuen. Etxebizitzaren salerosketa prezioa 125.000 €-koa izango da.

### UDAL ETXEBIZITZA TASATUAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, Obra Amaierako Ziurtagiria aurkeztearekin batera, aurkeztearekin batera MARIA PILAR GORRITI PAGOLA anderearen oinordekoaren ordezkari izan diren JACINTO ERICE ARAS jaunak, San Esteban bidea, 8 behean kokatutako A lokal komertzialean moldatutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatu du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egitzen Azkunek, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

EE2014\_04\_042

#### **BULEGO TEKNIKOA Udal Teknikariak Alkate andereari OBRA NAGUSIAK**

#### **SAN ESTEBAN BIDEA 8AN LOKALA ETXEBIZITZA BIHURTZEKO LEHEN ERABILERA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: San Esteban bidea 8, Usurbil  
ESKAERA DATA: 2014ko irailaren 12a  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2012-0112

---

#### **AURREKARIAK** (ikus EE2014\_04\_042, HZ.04/2012-0112)

➤ 2014ko ekainaren 27an udal arkitektoak txostena idatzi zuen, besteren artean honako baldintzekin:

- **ETXEBIZITZAREN ALTUERA LIBREA:** Sarrera eta sukaldean bete da 2,2m-ko altuera gutxienekoa, baina **gainontzeko gunean altuera ez da 2,5m-ra iristen (2.44m-ko gehiengoa neurtu da)**. Gaiaren inguruan, *Hiri Lurzoruan, eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen Udala Ordenantzak-en 5.3.2. artikulua bete beharko da:*

*"5. Bizigarritasun baldintzak.*

*(...)*

*3. Gutxieneko programa.*

*(...)*

*3.2. Gelen gutxieneko altuera librea:*



Usurbilgo Udala



**Gutxieneko altura librea etxebizitzan geletan 2,5 m-koa izango da (ondorioz, hasierako lokalak altura handiagoa izan beharko du).** Altura hori 2,2 m-raino murriztu ahal izango da komunetan, bainu geletan, korridoreetan, atarteetan, armairu geletan, trastelekuetan eta pertsonak luzaroan egoteko ez diren beste gela batzuetan.

**Salbuespenez onartu ahal izango da murrizte hori altueran egonleku, sukalde edo logeletako baten zati batean, egiturazko elementuak edo instalazio batzuk pasatzeko behar denean. Halako kasuetan, murriztutako altueraz dagoen egonlekuaren azalera ezingo da izan azalera osoaren %10 baino handiagoa”**

- **SUKALDEA:** Bertaratzean ikusi da sukaldeak jarri gabe dagoela, nahiz eta obra amaierako planuetan sukaldeak osoa datorren. Sukaldearen kokapenean hartuneak jarri direla ikusi da, aldiz, ez da sukaldeko keak eta gasak estalkiraino kanporatzeko hustubiderik/sistematik jarri kokapen horretan.

Gaiaren inguruan, *Hiri Lurzoruan, eremu finkatueta merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen Udal Ordenantzak-en 10. artikulua bete beharko da:*

*“10. Instalakuntzetarako baldintzak.*

*10.1. Sukaldearen baldintzak:*

*Sukaldeak aireztapen naturala izan beharko du, hau da, kanpoaldera ireki daitekeen leiho bat edo kanpoalderako ate bat, eta **sukaldean ariztetik sortutako keak eta gasak kanporatzeko sistema osagarri bat. Sistema horrek erauzgailu mekaniko bat izan beharko du, hodi bertikal aske bati konektatuta. Hori betetzea posible izango ez balitz, ke irteerarik gabeko multzo iragazle bat exijituko litzateke, ikatzezeko iragazkiarekin.”***

- **UR HORNIKUNTZA ZIURTAGIRIA:** Eusko Jaurlaritzako ur hornikuntza ziurtagiria aurkeztu beharko da (agua caliente sanitaria).
  - **ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA:** Etxebizitza tasatu moduan egin beharreko salerosketa medio, etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
  - **GALDARA:** Galdara elektrikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, instalakuntza indarrean den araudira egokitzen dela ziurtatzen duena.
  - **BESTEAK:** Edonola, indarrean diren *Hiri Lurzoruan, eremu finkatueta merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen Udal Ordenantzak* bete beharko dira. Baita aplikaziozkoa den gainontzeko araudia ere.
- 2014ko irailaren 12an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

## TXOSTENA

Pilar Gorriti andrearen izenean San Esteban 8an kokatutako lokal komertziala etxebizitza bihurtzeko obra amaierako dokumentazio gehigarria aurkeztu du, lehen erabilera eskatuz. Aurkeztu dokumentazioa da: eskaera orria eta memoria, non honakoak barneratzen diren:

- Intsonorizazio justifikazioa.
- Altuera librearen justifikazioa.



Usurbilgo Udala



- Sukaldearen aireztapena.
- Ur hornidura boletina.
- Termo elektrikoaren ziurtagiria.
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.

Dokumentazioa aztertu eta bertaratzea egin ostean, honakoa esan daiteke:

- ETXEBIZITZAREN ALTUERA LIBREA: 2.45 m-2.48 m arteko altuera libre dagoela adierazten da. Honen inguruan, aurreko txostenean esandakoak berresten dira eta Udalaren esku uzten da erabakia.
- SUKALDEA: Karbonozko filtrodun sukaldea jartzea proposatzen da.
- UR HORNIKUNTZA ZIURTAGIRIA: **Eusko Jaurlaritzako ur hornikuntza ziurtagiria aurkeztu da (agua caliente sanitaria). Ez dago eragozpenik.**
- ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA: **Etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria aurkeztu da. Ez dago eragozpenik.**
- GALDARA: **Termo elektrikoaren ziurtagiria aurkeztu da. Ez dago eragozpenik.**

## ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, **San Esteban 8an etxebizitza ezartzeari ALDEKO baimena ematen zaio aipatutakoaren baitan. Sukaldean proposatutako aireztapena ezarri beharko da ezinbestean.**

Hau da esan behar nuen,

Usurbilen, 2014ko urriaren 8an  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal Ordenantzaren 13. artikulua honela dio hitzez hitz:

### **«13. Artikulua. Behin behineko eta behin betiko kalifikazioa**

*Etxebizitza tasatuaren kalifikazioak izaera iraunkorra izango du. Kalifikazio iraunkorrak eskualdatze guztietarako gehieneko salmenta*



Usurbilgo Udala



prezioa suposatzen du eta, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzeko gaitasuna Udalerriko Administrazioak edo Eusko Jaurlaritzak izango dute.

(...)

## 2.- BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA

*Baimendutako obren ondoren, lehen erabilerarako baimena emateak ekarriko dio higiezinari babestutako etxebizitzaren (udal etxebizitza tasatua) behin betiko kalifikazio iraunkorra, eta honek ahalbidetuko du esleipendunarekin eskualdatze edo alokairuko eskrituren formalizazioa eta honek etxebizitza okupatzea.»*

Behin betiko kalifikazioa emateko zehaztapenak ondokoak dira:

# UDAL ETXEBIZITZA TASATUA

## BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA

- 
- |                         |                 |
|-------------------------|-----------------|
| 1) Espediente zenbakia: | HZ.04/2012-0112 |
|-------------------------|-----------------|
- 
- |                     |   |
|---------------------|---|
| 2) Sustatzailea(k): | <b>JULIAN MARIA ZUBELDIA CINCUNEGUI</b><br>NAN: 72.427.769-X<br>Helbidea: Mahaspildegi Etxea (Sakabanatuak 3.Sek. - 3, 1) / 20170 Usurbil |
|---------------------|---|
- 
- |                              |   |
|------------------------------|---|
| 3) Sustapenaren ezaugarriak: | Etxebizitza kopurua: 1<br>Etxebizitzaren azalera erabilgarria: 60,20 m <sup>2</sup> |
|------------------------------|---|
- 
- |   |          |
|---|----------|
| 4) Etxebizitzaren erabilera erregimena: | Salmenta |
|---|----------|
- 
- |                                 |              |
|---------------------------------|--------------|
| 5) Gehienezko salmenta prezioa: | 179.840,05 € |
|---------------------------------|--------------|
-



Usurbilgo Udala



- 
- 6) **Udal Etxebizitza Tasatuaren babes erregimena eta epea**
- Erregimen Berezia.
  - Babes iraunkorra.
- 
- 7) **Partzelaren katastroko datuak:**
- Zenbaki finkoa: 108944 D
  - Erreferentzi katastrala: 77 91 220
- 

Gauzak horrela, udal arkitektoaren ALDEKO txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-47 (Etxealdia) Eremuan, San Esteban bidea, 8 beheko A lokalean moldatu den etxebizitzari LEHEN ERABILERA baimena ematea, ondoren aipatzen diren baldintza eta betebeharrekin.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-47 (Etxealdia) Eremuan, San Esteban bidea, 8 beheko A lokalean moldatu den etxebizitzari Udal Etxebizitza Tasatuaren behin betiko kalifikazio iraunkorra ematea ondoko zehaztapenekin:

---

Espediente zenbakia:	HZ.04/2012-0112
Sustatzailea(k):	JULIAN MARIA ZUBELDIA CINCUNEGUI NAN: 72.427.769-X Helbidea: Mahaspildegi Etxea (Sakabanatuak 3.Sek. - 3, 1) / 20170 Usurbil
Sustapenaren ezaugarriak:	Etxebizitza kopurua: 1 Etxebizitzaren azalera erabilgarria: 60,20 m <sup>2</sup>
Etxebizitzaren erabilera erregimena:	Salmenta
Gehienezko salmenta prezioa:	179.840,05 €
Udal Etxebizitza Tasatuaren babes erregimena eta epea	Erregimen Berezia. Babes iraunkorra.
Partzelaren katastroko datuak:	Zenbaki finkoa: 108944 D Erreferentzi katastrala: 77 91 220

---



Usurbilgo Udala



**HIRUGARRENA:** Etxebizitzaren okupazioa. Erosleek (ALFONSO GONZALEZ LOPEZ eta MAIDER TELLECHERA ARZAMENDI) gehienez hiru hilabete izango dituzte etxebizitza okupatzeko, eskualdaketa eskritura sinatzen den unetik kontatzen hasita. Baldintza hau ez bada betetzen, Administrazioak lehenatasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzeko aukera izango du.

**LAUGARRENA:** Salerosketa kontratua. Salerosketa kontratuak Usurbilgo Udala Etxebizitza Tasatuak arautzen dituen Ordenantza Orokorrek ezarritako baldintzak bete beharko ditu eta Ordenantza honetan jasotako nahitaezko barneratze-klausulak jaso beharko ditu. Izenpetu beharreko salerosketa kontratuak, Usurbilgo Udalaren alde aurreko onespena eskuratu beharko du. Udala Etxebizitza Tasatuak salerosteko kontratu izenpetuak udalaren onspena jaso beharko du, eta onspen hori gabe ezingo da Jabetza Erregistroan inskribatu.

**BOSGARRENA:** Eskualdatzea gauzatzea. Etxebizitzaren lehenengo eskualdaketa, behin betiko kalifikazioa eskuratzen den unetik kontatzen hasita hilabeteko epean formalizatu beharko da eskritura publiko bidez. Eskriturak Udala Etxebizitza Tasatuaren behin betiko kalifikazio iraunkorra jasoko du, eta Usurbilgo Udalaren edo, subsidiarioki, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aldeko lehenatasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea onartu beharko da, etorkizuneko eskualdatzeetarako. Erosleak eskrituraren kopia bat emango dio Usurbilgo Udalari, behin Jabetzaren Erregistroan izena eman eta gero.

**SEIGARRENA:** Haztatutako aprobetxamenduen gehiegizko neurrien errefusa. Behealdeko lokala etxebizitza babestu bilakatzeak ez du inolako aldaketarik ekarriko hori aplikatu dakiokkeen aprobetxamendu homogeenan, beraz, jatorriko erabileraren arabera dagokion koefizientea mantentzen jarraituko du, edo, bestela, merkataritza erabilerari dagokiona. Lokala etxebizitza bihurtzearen eskaerak babesturiko etxebizitzaren haztapen koefizienteen aplikaziotik erator daitezkeen soberakindun aprobetxamenduei edo aprobetxamendu defizitarioei automatikoki ezezkoa ematea esan nahi du.

**ZAZPIGARRENA:** Baimena hau hirugarren batzuen eskubideen eta Jabekide Komunitatearen estatutuen aldarazpenen edota esku-hartzea eska dezakeen jabetza horizontaleko titularen kaltetan izan gabe emango da. Horien aurrean eraldaketaren sustatzailea izango da erantzulea.

**ZORTZIGARRENA:** Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamentuari eta Diputazioko Hiri Katastroari ematea.

### **3.- LASER KEN, S.A. ENPRESAK ATALLU INDUSTRIALDEKO 4. EXEKUZIO UNITATEAN TALLER MEKANIZATUA EZARTZEKO JARDUERA PROIEKTUARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, LASER KEN, S.A. enpresak Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean TALLER MEKANIZATUA ezartzeko jarduera proiektuaren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.





Usurbilgo Udala



ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2014-0383  
ESKATZAILEA: LASER KEN, S.A.  
JARDUERA MOTA: Tailer mekanizatua  
NON KOKATUA: Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatea

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, ondoko txostena eman du:

UA2014\_EE\_07\_06

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**JARDUERA SAILKATUAK**  
**ATALLU INDUSTRIALDEKO 4. LURSAILEAN TAILER**  
**MEKANIZATUA EZARTZEKO JARDUERA PROIEKTUARI**  
**HIRIGINTZA TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: LASER KEN S.A. enpresa.  
ESKAERA: Atallu industrialdean taller mekanizatua ezartzeko jarduera  
KOKAPENA: 4.lursaila, AREA 104 Atallu, Usurbil  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: **HZ.07/2014-0383 JARDUERA SAILKATUA**

---

**AURREKARIAK**

- 2014ko irailaren 9an LASER KEN S.A.-ren izenean Atalluko 4. lursailean tailer mekanizatua ezartzeko Jarduera Proiektua aurkeztu da dagokion baimena eskatuz.

**TXOSTENA**

LASER KEN S.A. enpresaren izenean Usurbilgo Atallu industrialdean, 4. lursailean tailer mekanizatua ezartzeko Jarduera baimena eskatu da, Jarduera Proiektua aurkeztearekin batera. Aurkeztu den dokumentazioa da: eskaera orria eta Jarduera Proiektua (arkitekto teknikoak eta injenieri teknikoak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia 82014-09-04 eta 2014-09-08); proiektuak barneratzen ditu: memoria, planuak, URA ur agentziaren txostena eta lurzorua kutsadura txostena.

Txosten honen helburua da ezarri nahi den jarduera hirigintza arauen arabera kokapen horretan ematerik badagoen aztertzea. Atallu industrialdea Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera hiri lurzoruan kokatzen da, A-104 Atallu Eremuan, industrial kalifikazioa izanik.

Proiektuan zehazten denaren arabera, bertan ezarri nahi den jarduera da;

*"1.3. DESCRIPCIÓN DE LA ACTIVIDAD:*

*1.3.1. OBJETO DE LA ACTIVIDAD*

*La actividad por la cual se desarrolla el presente trabajo, se pueden describir como trabajos de mecanizado, plegado y soldado de chapas de acero y aluminio.*



Usurbilgo Udala



*En las oficinas se realizarán los trabajos propios de coordinación, planificación y gestión de la propia actividad.*

*Para el desarrollo de dicha actividad industrial, la potencia total instalada es superior a 25 KW con una superficie específicamente destinada a producción superior a 300 m<sup>2</sup>, con lo que queda englobada dentro de las actividades clasificadas sometidas a licencia de actividad, según el anexo II B de la Ley 7/2012, de 23 de abril de modificaciones de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, que modifica el DECRETO 165/1999, del 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.*

*La actividad que se desarrolla no se encuentra sometida a procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental.*

### 1.3.2. DESCRIPCIÓN DEL PROCESO PRODUCTIVO.

*Básicamente la actividad consiste en el manipulado de la chapa, para darle una forma específica.*

*Para ello se utilizarán soldadoras, plegadoras y taladradoras.*

*Inicialmente se recibe el material y se almacena en una zona de producto recibido. De ahí, mediante carretillas elevadoras y/o puente grúa, se coloca el material en el almacenamiento inmediato de cada una de las zonas de trabajo. Una vez realizada la mecanización necesaria, el producto pasará al almacén de producto terminado, listo para cargar y enviar.*

*El material sobrante se lleva a la zona de chatarra para ser recogido por un gestor autorizado. Se trabaja con tres tipos de chapa: acero, acero inoxidable y aluminio. A su vez, dentro de la misma actividad, se desarrollan los trabajos propios de la oficina técnica y gestión de la empresa.*

- **ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK;** A-104 Atallu Eremuan indarrean dagoen hirigintza fitxak, erabilerearen inguruan zehazten du;" 3.- **ERABILERAK;** *Erabilera industrial izango da.*" . Horrekin batera, Atalluko Plan Partzialak ere onartzen du erabilera hau kokapen honetan, erabilera xehakatuari dagokionean. Beraz, **eman nahi den erabilera onargarria da kokapen horretan, eraikuntza egikaritzeko aurrez jaso behar den obra baimenen kalterik gabe.**
- **JARDUERA SAILKATUA;** 7/2012 LEGEA, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzeko-ak **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUGIROA BABESTEN DUEN OTSAILAREN 27KO 3/1998 LEGE OROKORRA ALDATZEKO VIII. KAPITULUA**-n dioen modura, jarduera sailkatutzat hartzen ditu eta jarduera baimenera bideratzen, alde batetik "4. **Industriak oro har**" eta baita ere, "6. **Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m<sup>2</sup>-tik gorakoa bada.**"

Beraz, LASER KEN S.A.-ak aurkeztu duen jarduera baimen hau jasotzeko **3/1998 Legeak jarduera sailkatuentzat zehazten duen prozedura jarraitu behar da.** Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, **Neurri Zuzentzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu.**



Usurbilgo Udala



- LUR KUTSATUAK: Eusko Jaurlaritzeko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharri dagokionez zera adierazten da;

IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAeko lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, LASER KEN S.A.-K tailer mekanizatua jarduera ezarri nahi duen lurzorua ez dagoela inbentariotua edo dokumentuan sartuta lur kutsatuak izan daitezkeen arriskuarekin. Hortaz, **ezarri nahi den jarduera berria, ez da lurzorua kutsa dezakeen jarduera jasan duen lursail batean kokatuko.**

#### **ONDORIOAK**

**Usurbilgo hirigintza arauen arabera jarduera eta kokapenaren egokitasunaren inguruan hirigintza txosten ALDEKOA idazten da. Horrekin batera, esan beharra dago, jarduera sailkatua izanik haientzat ezarritako izapidetzea jarraitu beharko dela.**

**Ohartarazten da, jarduerak ezinbestean bete beharko dituela Suteen Aurkako Babeserako neurriak.**

**Azkenik, gogorarazten da, eraikuntza egikaritzeko indarrean den araudia bete eta dagokion obra baimena jaso beharko dela.**

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna.

**Usurbilen, 2014ko irailaren 15ean.  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Ekhiñe Eiguren Azkune**

Udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** LASER KEN, S.A. enpresak Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean TALLER MEKANIZATUA ezartzeko jarduera proiektuari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako ingurutzailak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

**BIGARRENA:** Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

**HIRUGARRENA:** Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.



Usurbilgo Udala



#### **4.- IGEPAK, S.A. ENPRESARI AEROSOLAK EKOIZTEKO BERE JARDUERA ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO AITZEEZARRA KALEA 4EAN HAUNDITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.**

“Alkateak, laugarren eta bosgarren puntuei dagokienean adierazi du momentu honetan ezin dela baimendu. Plan Orokorra begira ikusi beharko dela dio dagoena kontsolidatu eta hazkunderik baimentzekotan, betiere arrisku maila handitzen ez den bitartean.”

Esp. Zenbakia: HZ.07/2014-0150

IGEPAK, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, aerosolak ekoizteko bere jarduera Zumartegi industrialdeko Aitezarra kalea 4ean haunditzeko baimena eskatzen du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean ondoko txostena eman du:

EE2014\_07\_06

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**HIRIGINTZA KONTSULTA**  
**IGEPAK ENPRESAK ZUMARTEGI INDUSTRIALDEAN DUEN**  
**JARDUERA HANDITZEKO BAIMEN ESKAERARI HIRIGINTZA**  
**TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Aitezarra 4, Zumartegi Industrialdea, Usurbil.  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ07/2014-150

---

#### **AURREKARIAK**

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingeneritzak IGEPAK enpresak Zumartegi Industrialdean duen jarduera handitzeko baimen eskaera egin du, honako proiektua aurkeztuz: “USURBILGO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN JARDUERA”.
- 2014ko ekainaren 17an udal arkitektoak eta ingurumen udal teknikariak bertaratzea egin dute.

#### Erlazionatuak:

#### **HZ.04/2014-171 – Zumartegi Industrialdeko Aitezarra 4 pabioia egokitzeko obra proiektua:**

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingeneritzak obra baimen eskaera aurkeztu du Udalean, IGEPAK S.A. enpresaren izenean; “PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO DE NUEVA NAVE DE



Usurbilgo Udala



IGEPAK, EN EL POLÍGONO INDUSTRIAL DE ZUMARTEGI, USURBIL”.

**HZ.07/2007-0067 – Aerosolak ekoizteko jarduera Aitezarra kalea, 4ko pabiloia zabaltzeko jarduera proiektua**

- Eskaera data: 2007ko otsailaren 16.
- 2008-02-11: Baimena bertan behera uzteko eskaera eta Jarduera proiektu berria baimen berri bat eskatuz.
- 2008-07-29: Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera ezartzeko baimena.
- 2009-02-24: Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia irekiera baimena emanaz.

**Zenb. 330/sig. 0199-01: Aitezarra kalea 2an Aerosolen ekoizketarako jarduera baimena.**

- 1996ko otsailaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak IGEPAK S.A. enpresari Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako iharduera instalatzeko baimena eman zion.
- 1997ko ekainaren 17an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean iharduera ezartzeko eraikitze pabiloien lehen erabilera baimena eman zen.
- 2001ko ekainaren 12an Tokiko Gobernu batzordeak IGEPAK S.A. enpresak zumartegi Industrialdean Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako jarritako iharduera irekitzeko udal baimena eman zuen.

**Tomo 361630- 1971. urtea. Solicitud de licencia municipal para el establecimiento de una industria destinada a la fabricación y envasado de AEROSOLES en el Polígono Industrial 24.**

## TXOSTENA

ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresaren izenean jarduera baimena eskatu du, enpresa horrek Usurbilgo Zumartegi industrialdean duen nabe berrira jarduera handitzeko. Eskaera orriarekin batera aurkeztu dokumentazioa da, Jarduera proiektua honakoak barneratzen dituena: memoria, planuak, suteen aurkako instalakuntza, produktuen fitxa teknikoak, makinariaren dokumentazio teknikoa, hondakin kudeatzaileen baimenak eta soinu azterlana, guztiak ingenieroak izenpetuak eta dagokion Elkargo Ofizialak ikusonetsi gabe. Teknikari gaituaren erantzukizun aitortpenik ere ez da aurkeztu.

Eskatzen den jarduera baimenaren inguruan, aurkeztu Jarduera Proiektuak honakoa zehazten du:

*“La empresa IGEPAK, S.A. centra su actividad en el desarrollo, formulación y envasado de productos en aerosol. La empresa desarrolla su actividad en tres pabellones que tiene en propiedad en el Polígono Industrial de Zumartegi, en Usurbil, siendo la sede principal la*



Usurbilgo Udala



situada en Legarda kalea, 2. Las otras dos naves se sitúan en la calle Atzezarra, a ambos lados de la calle Osiña.

Con objeto de aumentar su capacidad productiva y mejorar el servicio que da a sus clientes, IGEPAK S.A. compra el pabellón anexo a uno de los que tiene en propiedad en la actualidad, concretamente la situada en la calle Atzezarra, en el edificio de San Miguel, de aproximadamente 1.800 m<sup>2</sup>. Con esta nueva adquisición, asimismo, se dejaría abierta la posibilidad de una futura reestructuración de sus plantas en el polígono de Zumartegi.” (Memoriaren 1. orria).

“- Planta baja de producción y almacenaje (...):

- Almacenaje (...)

- Zona de envasado (...)

-Zona de formulación: Es donde se mezclan las distintas materia primas que componen el producto a envasar (...)”  
( Memoriaren 3. orrian)

“3. ACTIVIDAD:

3.1. DESCRIPCIÓN DEL PROCESO INDUSTRIAL

La empresa IGEPAK, S.A. centra su actividad en el desarrollo, formulación y envasado de productos en aerosol para terceros.

Básicamente un aerosol está formado por los siguientes elementos:

- **Envase:** puede ser de aluminio, hojalata o plástico a los cuales se le ha añadido una válvula-pulsador de plástico y como cierre un tapón de plástico.

- **Contenido:** es el producto que se envasa y se pulveriza. Puede ser de formulación (se mezclan los distintos principios activos y agentes intermedios antes de su envasado para obtener el producto) o bien de concentrado (una empresa ajena a IGEPAK proporciona su producto tal y como quiere que sea el envasado).

- **Propelente:** es un gas que provoca que el contenido salga al exterior cuando se oprime la válvula-pulsador.”

“3.3. MAQUINARIA E INSTALACIONES:

(...)

Sala de formulación:

- Tanques atmosféricos o en vacío con agitadores para mezcla.

Sala de envasado:

- Línea de envasado de aerosoles.

- Enfajadora vertical

- Precintadora de cajas.

- Máquina pesadora y módulo codificador pro inyección de tinta.” (Memoriaren 6. orrian).

“ 3.6. PRODUCTOS QUÍMICOS.

Se prevé un espacio destinado a almacenaje de productos químicos tales como diluyentes, aceites, perfumes y fragancias”.  
(memoriaren 7. orrian).



Usurbilgo Udala



IGEPAK enpresak bere jarduera handitu nahi duen pabiloia Aitezarra 4 kalean kokatzen da, Usurbilgo Zumartegi industrialdea, 2013ko irailaren 10ean BOG-en argitaratu zen Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera hiri lurzoruan, A-30 ZUMARTEGI eremuan hain zuzen. Eremu horri dagokion A-30 ZUMARTEGI hirigintza fitxak honakoa finkatzen du bertan ezarri daitezkeen erabileren inguruan:

*“3.- ERABILERA:*

*Erabilera industrial izango, Atxega jauregiarena ezik. Eta ez da inolako jarduketarik onartuko leku itxietatik kanpo. Atxega jauregiaren erabilera merkatal-ostalaritzazkoa izango da.*

*Gainerako HEUetan erabilerak ondoko hauek izango dira:*

*Biltegiak, garajeak, tailer eta industri ez-kutsatzaileak. **Industria kimikoak** eta farmaziazkoak **ez dira baimentzen.**”*

**ONDORIOAK**

Ondorioz, ikusirik 2013ko irailaren 10ean BOG-en argitaratu zen Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateginak ez duela A-30 ZUMARTEGI eremuan industria kimikorik baimentzen eta IGEPAK S.A. enpresak 2014ko apirilaren 16an aurkeztu duen jarduera eskaerak industria kimiko jarduera barneratzen duela, **eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idazten zaio.**

**Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.**

**Usurbilen, 2014ko uztailaren 8an**

**UDAL ARKITEKTOA**

**Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune**

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak berriz ondoko txostena eman du:

IG2014\_07\_06

**BULEGO TEKNIKOA**

**Udal Teknikariak Alkate jaunari**

**HIRIGINTZA KONTSULTA**

**IGEPAK ENPRESAK ZUMARTEGI INDUSTRIALDEAN DUEN  
JARDUERA HANDITZEKO BAIMEN ESKAERARI HIRIGINTZA  
TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Aitezarra 4, Zumartegi Industrialdea, Usurbil.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ07/2014-150

---



Usurbilgo Udala



## AURREKARIAK

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresak Zumartegi Industrialdean duen jarduera handitzeko baimen eskaera egin du, honako proiektua aurkeztuz: "USURBILGO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN JARDUERA".
- 2014ko ekainaren 17an udal arkitektoak eta ingurumen udal teknikariak bertaratzea egin dute.
- Aipatu eremua, 2014ko martxoak 7ko Eusko Jaurlaritzako ingurumen eta lurralde politikako saileko ebazpenaren bidez, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura abiatzeki salbuetsita geratzen da.

## TXOSTENA eta ONDORIOAK

Ingurumenari dagokionez, Aitezarra 4 Zumartegi eremuan, baimendu daitekeen edozein jarduera ezartzeko, ez da beharrezkoa lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena abiatzea.

**Usurbilen, 2014ko uztailaren 16an  
NEKAZARITZA ETA INGURUMEN TEKNIKARIA  
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi**

Eskaria kontutan hartuz, udal arkitektoaren zein nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** IGEPAK, S.A. enpresari aerosolak ekoizteko bere jarduera Zumartegi industrialdeko Aitezarra kalea 4ean haunditzeko udal baimena UKATZEA.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari ematea.

**5.- IGEPAK, S.A. ENPRESARI AEROSOLAK EKOIZTEKO BERE JARDUERA HAUNDITU AHAL IZATEKO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO AITZAZARRA KALEA 4KO PABILOIA EGOKITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0171

IGEPAK, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, aerosolak ekoizteko bere jarduera haunditu ahal izateko Zumartegi industrialdeko Aitezarra kalea 4ko pabiloia egokitzeko baimena eskatzen du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean ondoko txostena eman du:





Usurbilgo Udala



EE2014\_04\_47

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**HIRIGINTZA KONTSULTA**  
**IGEPAK ENPRESAK ZUMARTEGI INDUSTRIALDEAN DUEN**  
**PABILOIA JARDUERA HANDITZERA EGOKITZEKO BAIMEN**  
**ESKAERARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Aitezarra 4, Zumartegi Industrialdea, Usurbil.  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2014-171

---

**AURREKARIAK**

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingeneritzak obra baimen eskaera aurkeztu du Udalean, IGEPAK S.A. enpresaren izenean; "PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO DE NUEVA NAVE DE IGEPAK, EN EL POLÍGONO INDUSTRIAL DE ZUMARTEGI, USURBIL".
- 2014ko ekainaren 17an udal arkitektoak eta ingurumen udal teknikariak bertaratzea egin dute.

Erlazionatuak:

**HZ.07/2014-150 – Zumartegi Industrialdeko Aitezarra 4 pabiloian jarduera handitzeko jarduera egobra proiektua:**

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingeneritzak IGEPAK enpresak Zumartegi Industrialdean duen jarduera handitzeko baimen eskaera egin du, honako proiektua aurkeztuz: "USURBILGO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN JARDUERA".
- 2014ko uztailaren 8an udal arkitektoak jarduera baimen eskaerari **AURKAKO HIRIGINTZA TXOSTENA IDATZI ZION, honakoa ondorioztatuz:**

"Ondorioz, ikusirik 2013ko irailaren 10ean BOG-en argitaratu zen Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateginak ez duela A-30 ZUMARTEGI eremuan industria kimikorik baimentzen eta IGEPAK S.A. enpresak 2014ko apirilaren 16an aurkeztu duen jarduera eskaerak industria kimiko jarduera barnatzen duela, **eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idazten zaio.**"

**HZ.07/2007-0067 – Aerosolak ekoizteko jarduera Aitezarra kalea, 4ko pabiloia zabaltzeko jarduera proiektua**

- Eskaera data: 2007ko otsailaren 16.
- 2008-02-11: Baimena bertan behera uzteko eskaera eta Jarduera proiektu berria baimen berri bat eskatuz.
- 2008-07-29: Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera ezartzeko baimena.
- 2009-02-24: Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia irekiera baimena emanez.



Usurbilgo Udala



**Zenb. 330/sig. 0199-01: Aitezarra kalea 2an Aerosolen ekoizketarako jarduera baimena.**

- 1996ko otsailaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak IGEPAK S.A. enpresari Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako iharduera instalatzeko baimena eman zion.
- 1997ko ekainaren 17an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean iharduera ezartzeko eraikitze pabiloien lehen erabilera baimena eman zen.
- 2001ko ekainaren 12an Tokiko Gobernu batzordeak IGEPAK S.A. enpresak zumartegi Industrialdean Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako jarritako iharduera irekitzeko udal baimena eman zuen.

**Tomo 361630- 1971. urtea. Solicitud de licencia municipal para el establecimiento de una industria destinada a la fabricación y envasado de AEROSOLES en el Polígono Industrial 24.**

**TXOSTENA**

ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresaren izenean obra baimena eskatu du, enpresa horrek Usurbilgo Zumartegi industrialdean duen nabe berri jarduera handitzera egokitzeko. Eskaera orriarekin batera aurkeztu dokumentazioa da Obra proiektua, honakoak barneratzen dituena: memoria, planuak, Kalitatearen Kontrolerako egitasmoa, Segurtasuna eta Osasun Azterlana, Hondakinen Kudeaketarako azterlana, argazkiak, baldintza plegua eta aurrekontua. Guztiak teknikari gaituak izenpetuak (ingenieroa) eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe

Aurkeztu den Exekuzio Proiektuaren helburua da:

**“1.3. OBJETO DEL PROYECTO:**

*El objeto del siguiente Proyecto es la definición de todos los trabajos necesario para la modificación de la cubierta del edificio de San Miguel S.L. en la parcela 30.1. del polígono industrial de Zumartegi en Usurbil para poder adecuar su uso a la actividad que ejerce IGEPAK, S.A. y aumentar así su capacidad de producción. También se definen las instalaciones para acondicionar la nave de acuerdo al nuevo aprovechamiento”. (memoriaren 1. orrian).*

Horrekin batera, memoriaren 3. orrian honakoa esaten da:

**“2 ANTECEDENTES E INFORMACIÓN PREVIA.**

**2.1. ANTECEDENTES Y CONDICIONANTES DE PARTIDA:**

*La empresa IGEPAK S.A. CENTRA SU ACTIVIDAD EN EL DESARROLLO, FOMULACIÓN Y ENVASADO DE PRODUCTOS EN AEROSOL PARA TERCEROS. La empresa desarrolla su actividad en tres pabellones que tiene en propiedad en el Polígono Industrial de Zumartegi, en Usurbil (...).*

*Con objeto de aumentar su capacidad productiva y mejorar el servicio que da a sus clientes, IGEPAK S.A. compra el pabellón anexo a uno de los que tiene en propiedad en la actualidad, concretamente situada en la calle Aitezarra, en el edificio de San Miguel, de aproximadamente 1.800 m2. Con esta nueva adquisición y la conexión*



Usurbilgo Udala



*con su planta actual se dejaría abierta la posibilidad de una futura reestructuración de sus plantas en el polígono de Zumartegi”.*

Beraz, orain eskatzen diren obrek aipatu jardueraren handitzea ezartzeko egokitzapena dira. Erabileraren inguruan, aurrekarietan azaldu bezala 2014ko uztailaren udal arkitektoak Jarduera baimena eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idatzi zion, ezarri nahi den erabilera Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subisidarioen Testu Bateginak finkatutakoaren kontra doalako. Ondorioz, **egokitzapen obra hauek ez dira baimengarriak, baimendu ezin daitekeen jarduera bat egokitzea helburu izanik (ikus EE2014\_07\_06 txostena).**

Horrekin batera honakoak ikusi dira:

- **EXEKUZIO PROIEKTUA ELKARGO OFIZIALAK IKUS-ONETSI GABE:** Exekuzio Proiektua teknikari gaituak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu da. Ez da *Teknikari Tituludun gisa aritzeko aitortzen* aurkeztu. **Ezinbestean 1000/2010 Elkargoen Ikus-Onespen Derrigorrezkoaren Erret Dekretua bete beharko da.**
- **BERTARATZEA ETA AURKEZTU PROIEKTUA:** Aurkeztu Exekuzio Proiektuaren memoriaren 11.en orrian, honakoa esaten da:

**“5. DESCRIPCIÓN DE LAS OBRAS DEL PROYECTO  
(...)”**

**No se afecta la superficie en planta. En cuanto a la superficie construida por encima del nivel de solera, es decir, el de la entreplanta, ésta se ajustó durante la definición de la nave de San Miguel al 30% admitido por la ordenación del polígono.** La cornisa del edificio no se modifica, luego, **no se modifican las condiciones edificadas, estando dentro del cumplimiento de la normativa urbanística vigente”**

Exekuzio Proiektuaren planuetan 3.1. Oin plano orokorra eta 3.3. Nabearen ebaketa planuetan, egungo egoera jaso da, behe solairua eta bi goi solairu jasotzen dituena.

Aldiz, bertaratzean ikusi da Exekuzio Proiektuak jasotzen duen gaur egungo egoera eta egoera erreala ez datozela bat; izan ere, alde batetik behe solairuak jaso ez den banaketa barneratzen du eta bestetik, bai lehenengo solairuan eta baita bigarrenean ere proiektuan aitortzen dena baino azalera eraiki handiagoa eraiki baita (ikus argazkiak).

Ondorioz, **Exekuzio Proiektuak pabiloiaren egungo egoera jaso beharko du ezinbestean eta baita egungo egoerarengan egin nahi diren aldaketak. Egungo egoeran baimenik gabe egikaritu diren obrarik balego, legezta egin beharko da eta legeztazerik egongo ez balitz egoera leheneratu beharko da, 2/2006 Lurzoruaren Legeak 219. artikulua eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz eta beti ere, Udalak arau-haustean**



Usurbilgo Udala



inguruan har ditzakeen hirigintza zehapenak/isunak ezartzeko erabakiaren kalterik gabe (2/2006 Legearen 226. eta 227. artikulua).



*Beha solairuaren banaketa.*



*Lehenengo solairuaren egoera bertaratzean.*



*Bigarren solairuaren egoera bertaratzean.*



- HIRIGINTZA PARAMETROEN ALDATZEA: Aplikaziozkoa den AASS-en A-30 Zumartegi hirigintza fitxak eraikinaren bolumena eta konfigurazioa kontsolidatzen duen heinean, egikaritu nahi den obrak ezingo du eraikuntza jatorrizkoaren bolumena eraldatu/handitu eta horren zehaztapena/justifikazioa ziurtatu beharko da.

#### **ONDORIOAK**

Ondorioz, goian aipatutakoari jarrituz, obra baimen **eskaerari AURKAKO txostena idazten zaio.**

**Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.**

**Usurbilen, 2014ko uztailaren 16an  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune**

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala



## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** IGEPAK, S.A. enpresari aerosolak ekoizteko bere jarduera haunditu ahal izateko Zumartegi industrialdeko Aitezarra kalea 4ko pabiloia egokitzeke udal baimena UKATZEA.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari ematea.

### 6.- 2014KO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Noaua Kultur Elkarte (KE.01/2014-065)  
Usurbilgo Dantza Egunaren antolakuntza taldea (KE.01/2014-057)  
EHAZE (KE.01/2014-0073)  
Nafartarrak (KE.01/2014-0074)

#### Ikusirik

2014eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, 2014ko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, kultur elkarteek hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

#### Noaua Kultur Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
49. Joseba Tapiaren kontzertua	883,80 €	662,85 €	Gastuak: 1.537,20 Sarrerak: 422,00 Guztira gastua: 1,115,20 Soberakina: 231,40	220,95
51. Inauteriak 2014	1.307,16 €	980,37 €	Gastuak: 1.617,20 Soberakina: 310,04	326,79
52. Euskarazko Labur bira	515,59 €	386,69 €	Gastuak: 584,50 Soberakina: 68,91	128,90
53. Sagastiak loretan ospakizuna	1.488,60 €	1,116,45 €	Gastuak: 1.260,47 49. ekintzetako dif: 228,13 Guztira gastuak: 1.488,60	372,15
54. Plis Plas Txalo eta Jolas	724,65 €	543,49 €	Gastuak: 830,87 Soberakina: 106,22	181,16
			<b>Guztira</b>	<b>1.229,95 €</b>

#### Usurbilgo Dantza egunaren antolakuntza taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
----------	-----------	--------------	------------------	---------------------



Usurbilgo Udala



21. Dantza Eguna	2.700,00 €	2.025,00 €	Gastuak: 3.016,00 € Soberakina: 316,00 €	675,00 €
<b>Guztira</b>				<b>675,00 €</b>

#### EHAZE

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
85. 6.Topa Eszenika	3.125,75 €	2.344,28 €	Gastuak: 3.525,70 € Sarrerak: 400,00 € Guztira gastuak: 3.125,70 €	781,43 €
86. 6. Topa Eszenika	240,00 €	180,00 €	Gastuak: 484,00 € Sarrerak: 29,00 € Guztira gastuak: 455,00 € Soberakina: 215 €	60,00 €
87. 6. Topa Eszenika	918,90 €	689,18 €	Gastuak: 963,91 € Sarrerak: 70 € Guztira gastuak: 893,91 € + 86. ekintzako soberakina 24,99 €	229,73 €
88. 6. Topa Eszenika	3.149,10 €	2.361,83 €	Gastuak: 3.149,00 € Sarrerak: 490,00 € Guztira gastuak: 2.659,00 86. ekintzako soberakina 190,01 € Guztira 2.849,01 €	487,18 €
<b>Guztira</b>				<b>1.558,32 €</b>

#### Nafartarrak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
89. Hitzaldia: Katalunian bizi duten egoera	318,44 €	238,83 €	Gastuak: 352,00 € Soberakina: 33,56 €	79,61 €
94. Hitzaldi sorta	670,39 €	502,79 €	Gastuak: 880,00 € Soberakina: 209,61 €	167,60 €
<b>Guztira</b>				<b>247,21 €</b>

#### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Alegazioei erantzuteko Kultura Teknikariaren txostenak

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### ERABAKIA

**Lehenengoa:** Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:



Usurbilgo Udala



<b>Eskatzailea</b>	<b>Ekintza</b>	<b>Ordainketa</b>
Noaia Kultur Elkartea	49,51,52,53,54	1.229,95
Usurbilgo Dantza egunaren antolakuntza taldea	21	675,00
EHAZE	85,86,87,88	1.558,32
Nafartarrak	89,94	247,21

**Bigarrena:** Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:  
1.4000.481.451.10.03.2014 (A6/2014)

**Hirugarrena:** Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

**Laugarrena:** Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:20ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**